

Mikel Irizar

## Impression, soleil levant

E

z naiz informazio bereziaren jabe; eta, hala ere, han-hemenka jasotako zertzeladekin, izenburuko paisaia inpresionista irtetzen zait. Alegia, inpresioa dudala Barajasko atentatuak gauzak aldatu bai, baina ez duela ezer zapuztu: eguzkia datorrela.

### BATASUNA

Disimulatu nahi izan zuten ustekabeen harrapatu zituela ezta, nahiz ez ziren iritsi aitortzera nolako kaltea egin zien. Eta, beste behin, zutitu egin dira egoera zailetik, boxeolari egoskorra egurpean nola.

Berriki deskubritu dute autonomia ez dela, berez, independentziaren etsai, izan daitekeela independentziara bidean tarteko geltoki. Baita Iparralde eta Hegoalde ibilbidearen puntu ezberdinetan daudela, zati bat derrigorrez egin behar dutela bakoitzak bere aldetik. Norbaitek bota du, mesprexuz bezala, hori Konstituzioak berak ere badioela. Arraioa! Batasunak onartzen badu Konstituzioan kabitzen den marko politikoa, ez al gaude orduan konponbidetik oso gertu?

### ZAPATERO

Honek ere, esan beharrik ez dago, ez zuen bonbarik espero Barajasen. Oraindik ez zaio tonto musua erabat ezabatu, bezperako iragarpen bizi laburrekoak hormigoiz azpian lurperatuta. Ez du, haatik, zuhurtzia galdu inongo momentutan; alderantziz, une oro erakutsi du –nola edo hala– beste saio baterako prestutasuna.

Bunker judizialak argi erakutsi dio ez diola inongo laguntasunik emango. Bere iraganaren morroi dugu ZP: onartu egin zuen aginte judiziala alderdien artean banatzea eta, Batasuna erasotzeko, alderdien legea bultzatu zuen; orain ezin ditu aldatu. Eta tematu egin da lehentasun okerrean: PP ez du bereganatuko prozesuaren hasieran, baizik amaieran, indarra erakutsi eta gero. Orain lehentasunezkoa du azeleratzea, erakustea gai dela ibilbide zailen helmugara –helmuga batera– iristeko.



ALBERTO ELOSEGI

### RAJOY

Hau ere tematu egin da, atzera bueltarik ez duen zuloan sartu arte. Nekez izango du egokiera hobirik –gogoratu Zapatero tonto musuarekin– Espainiari bere estrategiaren abantailak saltzeko. Eta hala ere, inkestetan ez du aurrera egin, baizik atzera. Espainia bat bereganatu du, baina haren preso bihurtzearen truke. Eskuin muturtuak ez dio gehiengorik emango, eta Rajoy ezin da mugitu zentro aldera, sostengu gehiagoren bila.

Ordea, gortetan ez bezala, eremu judizialean eta hedabideetan bera da aginte eta ZP oposizio. Hirugarren eta laugarren aginteetan gehiengoa du PPk, exekutiboan eta legegilean ZPk duen bezalaxe. Ez da berdinketa, baina bai oreka. Horrelako borrokak gogorak izaten dira, luzeak, nekagarriak.

### IBARRETXE

Toki bat baino gehiagotan entzun ditut hil kanpaiak, Ibarretxeren etorkizun politikoari buruz. Egia da ez duela toki garbirik bi karriletako prozesuan; eta nabarmena da alderdi gehienek nahiago luketela lehendakari moldagarriago bat, bere alderdia bera barne. Baina nago jendartearentzat duintasunaren paladina bihurtu dela Ibarretxe eta alderdietako buruei aitortzen ez zaien errespetua diotela herritar askok. Epaitegiko sartu-irtenak areagotu egin du irudi hori eta, gogoratu, Ibarretxe gai izan zela 600.000 boto biltzeko, egur garaian.

Bi urte ditu oraingoa aurrean, eta hemen nire apustua: denbora horretan egoera politikoa bideratzen bada, Ibarretxe ez da hurrengoan aurkeztuko; ordea, egoerak itsusira egiten bada, kontuz! Ibarretxe tematu egin da tokatu zaion zama helmugaraino eramaten –tarteko helmuga bada ere– eta ez du erraz etsiko.

### MONET

Izenburua Monet-i kendu diot: *Impression, Soleil levant*, (1873); *Huile sur toile*. Claude Monet. Ederra da oso, nire hau baino ederragoa. ■

Impresioa dudala Barajasko  
atentatuak gauzak aldatu bai,  
baina ez duela ezer zapuztu:  
eguzkia datorrela